



193. ZENBAKIA. EURO BAT
2010eko AZAROA

www.baleike.com

'MOTXO': GALDERA GEHIEGI

**Arrantzontziaren istripuak
eta ondorengo erreskate saio
ustelek galdera gehiegi utzi
dituzte airean**





Casa BASUSTA



**CASA
BASUSTA**
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak



Etkez etxeko zerbitzua

Santiago auzoa, 18 TEL: 943 862611

ERROTA



OPILOKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

BALEIKE 193

AZALA g. zabaleta



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Administrazio batzordea: Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Erredakzio taldea: Xabier Aizpurua, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio eta

Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

10

baleike +

'MOTXO'-REN ISTRIPUA

4

hitz-tantak
JABI LEIZA

7

iritzia
ZUGAREN
V. URTEURRENA

8

baleike.com
POLIZIA OPERAZIOA

9

bertso xorta
MARKEL PEÑALBA

19

erreportajea
TRAGEDIA BATEN
KRONIKA

29

elkarriketa
APAIZAC OBETO

37

agenda
AZAROA-ABENDUA

38

ipuina
LIBURUA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Zumaia Udalak



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA) diruz lagundutakoa

“Ez naiz ehun kilo perretxiko hartzen dituen horietakoa”

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MANTEROLA

Sukaldeko mahaian otarra dauka. Eta alboan, perretxikoen liburu mardula. Aurten gutxi joan dela dio. Gutxi dagoela ere onartu du. Baina prest dauzka makila, botak, aiztoa eta, nola ez, otarra. Joan gabe ez baita hartzen.



Perretxikotara joateko latina jakin behar al da?

Ez. Latina ez. Garbi eduki behar da bakoitzak zer nahi duen. Perretxiko hilgarriak ere badaude-eta.

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela, alegia.

Bai, bai. Baina ez beti: perretxikoen argazki eder askoak ere badira, baina gero, txarrak dira ale horiek. Guk lauzpabost espezie hartzen ditugu. Txikitatik hartu izan ditugunak: gibelurdiak, onddoak, robeiloaiak, txanpinoiak, galanpernak... Hortik kanpo gutxi.

Zenbat espezie dauden ba al dakizu?

Ez, baina milaka izango dira.

Etiketetik jaso al duzue zaletasuna?

Bai. Aitaren herrira joaten ginen, Arantzara (Nafarroa), eta hantxe ekin genion.

Udazkena bakarrik al da garai egokia?

Bai, baina uda hasieran ere badaki jotzen, ekaina inguruan. Baina brote handienak oraingoak dira.

Motzegia ez al da garaia?

Bueno... Garaian garaikoa. Angulak bezala. Euria egiten badu, urtean zehar ateratzen dira.

Zer moduz doa aurten-go?

Ez gara gehiegi ibili, baina oso gutxi dago. Iazko aldean, eskas. Orduan, dezentte hartu genituen.

Zergatik gutxi?

Ederra galdera! Euri gutxi egin du udan, oso lehor dago dena, eta horregatik da. Hezetasun handia behar du perretxikoak. Ilargiak eragina duela ere esaten dute batzuek, baina niretzat euri asko eta hezetasun handia dira garrantzitsuenak.

Eraginik ez al du urte batean sekulako piloa harrrapatu izanak?

Ez. Beti egoten dira urte onak eta txarrak. Hobe galdera hori aditu bati egitea.

Zu ez al zara, ba, aditua?

Ni txapuzero hutsa naiz.

“Onddotara joan eta aurrez aurre piloa ikusteak ilusioa egiten dit”

Perretxikozaleak esaten al du halako lekutan ale ugari dagoela?

Normalean sekretuak gorde egiten dira. Esaten badugu leku onak non dauden, jende gehiegi bilduko ginen leku batean.

Orduan, ez dizut galdetuko leku onen berririk duzun edo ez.

Ez, ez. Ez galdetu. Baina Nafarroako baso handiak oso leku egokiak dira. Baina txarrak ere badaude. Joan eta kale egiten ikasten da non dauden txoko onak.

Zuk galdetzen al diezu besteei?

Ez, alferrik da galdetzea.



Izena: Jabi Leiza

Jaioterria: Zumaia

Jaioteguna: 1972ko abenduaren 21a

Gehien gustatzen zaizun perretxikoa?

Kuletoa. Hain gutxitan hartu dugu!

Eta jateko? Gibelurdina eta onddoa.

Onena ondo beltza. Zuria ere ona da...

Eta jatea gustatzen ez zaizunik?

Guk harrapatzen ditugun espezieetatik denak dira gozoak

Perretxikoekin egindako platerik

gozoena? Onddoak eta gibelurdinak plantxan. Rebueltoa ere gozo askoa da. Perretxikoa ona bada...

Perretxikotara joateko lagunen bat?

Bi anaiak

Asko harrapatu eta gutxi hartu duela esaten al du perretxikozaleak?

Nik ez. Lekuaren berri ez dut ematen, baina kopurua ez dut ezkutatzten. Tontogia izango naiz, agian.

Jende gehiegi ez al zabiltzate perretxikotan?

Asko ibiltzen gara. Esaterako, iaz, Urbasa aldera joan ginen batean, goizean goiz, eguna argitzeke zegoela, berrehun lagun bazeuden han inguruan.

Denak zuek bezalako benetako perretxikozaleak?

Baietz uste dut. Baina bestelakoak ere izango ziren, mendiak zikintzen dituzten horietakoak. Guk umetatik ikasi dugu txukun eta garbi ibiltzen.

Halakoei zerbait esaten al diezue?

Esan izan diegu, baina gu ez gara inor ezer esateko, ez gara mendizainak.

Anaien artean sekreturik bai al da?

Ez, ez.

Zenbat aldiz ekarri duzu otarra hutsik etxera?

Askotan. Beti ekartzen da bakarren bat, baina askotan etorri izan naiz oso gutxirekin. Aurten, adibidez, onddoen bila joan eta ale bakanak ekarri izan ditut.

Eta otarra gainezka duzula askotan ekarri al duzu?

Gertatu izan zait. Duela bizpahiru urte, Iratin (Nafarroa), ordu eta erdian bete nuen otarra. Behin betetzen dudanean, buelta egiten dut. Ez naiz beste batzuk bezalakoa, ehun kilo hartzen dituzten horietakoa. Otarra bete, mendi buelta ederra egin, eta gu gustura!

Zer esanahi dauka zuretzat perretxikotara joateak?

Poz ikaragarria ematen dit. Onddotara joan, eta aurrez aurre piloa ikusteak ilusio handia egiten dit.

Nafarroa aipatu duzu

“Esaten badugu leku onak non dauden, jende gehiegi bilduko ginen leku batean”

behin baino gehiagotan, eta hemen inguruan ez al dago ezer?

Pinudi inguruan ari dira hartzen. Esaten dutenez, Elgoibar aldean dezente jo du. Artikutzan izan gara bitan aurten, eta gutxi bildu arren, leku egokia da. Onddo atera berriak hartu genituen.

Zer esaten dizue aitak otarra bete etxera ekartzeari?

Irribarre ederra ateratzen zaio.

Amak ere partea dauka. Sukaldari abila da.

Bai, bai, bai. Denetarik egi-

ten du: hojaldreak, saltsak...

Perretxikoak etxean garbitzen al dituzue?

Guk ez. Harrapatu eta segituan garbitzen ditugu. Otarra ahalik eta garbien ekartzen dugu. Etxean garbitu egin behar dira, hala ere. Baina gehiena tokian bertan garbitzen dugu.

Zenbatekoa da perretxiko zaletasuna Zumaian?

Handia. Jende asko joaten da bila. Soria alderaino (Espainia) joaten denik ere bada.

Zuhaitz jakinen bat egokia al da inguruan perretxikoak ateratzeko?

Bat baino gehiagoren nahasketa da onena. Baina pagadiak aproposak dira onddoak ateratzeko.

Hartu eta hartu, ez al dira bukatuko arrain espezie batzuekin gertatzen den bezala?

Ezetz esaten dute. Lehen askoz jende gutxiago ibiltzen zen, hori ere egia da. ■

7
MARES
7 MARES Izoituak

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309

a3

Alai auzategia 8
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumaia@terra.es

LIBRURU DENDA

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 726188
943 143261

ALBERDI
Dj July

Musika onena eskontzetan,
kintoen ospakizunetan eta
era guztietako festetan

600 982 810
july_alberdi144@hotmail.com

ALGORRI TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA

ANA
ETXKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157
anasetxkozapiek@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA

D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea
tel. 943 117 406

OKINDEGIA
Arkiepa

Naupaka, 2 - tel. 943 861 021
ZUMAIA

OGI-EDER

ARRUTI
Baltasar Etxabe 2/9
Zumaia 943016429

AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5
tel. 943 861 485

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa
tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net

Basodi
albaitaritza

Albaitaria
Itzi Garmendia

Basodi, 7. behea - tel. 943 143 310
www.basodicitiviet.com
www.basodicitiviet.com

Golbez: 11-13 / Arrotsak: 15-19:30 / Astelaren goizean eta larunbatean 10:30
Lamiakidatzen: 605 728 797 Etxez ebeko zerbitzuak

BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25
tel. 943 862 073

BATELA

ARRANDEGIA

Izustarri, 2-4
Tel. 943 860 750

BEDUA
ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA

-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMAEIA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

Braky's
Okindegia Kafeategia

Izaga kalea, 2
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
TL: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

Etorkizuneko Zumaiari

ZU.G.A.

IRITZIA

Etorkizuneko Zumaiari:

Zumaian bizi den gazte bat naiz eta aisialdia nola bete ez dakidanez ondoko nire herriko gabezien inguruko gogoeta hauek egitera ausartu naiz. Barkatuko didazue atrebentzia.

Langabezia da nire eguneroko ogia. Badakizue gazteok ez dugula erraza lana bilatzea. Hemendik bost urtetara amaren etxean jarraituko dut martxa honetan.

Etxebizitza eskubide bat dela pentsatzen dut, gaur egun daramaten etxebizitza politika ez baita bidezkoa. Hausnarketa sakon baten beharrean gaude, baina inor ez da antolatu gai hau lantzeko. Alternatiba berrietan sinisten dut, alokairu publikoak eta etxe hutsei irtenbidea ematea, besteak beste. Gutxienez jendea bilduko balitz gure eskubideen defentsan, akanpadak eginez, manifestuak kaleratuz, firmak bilduz... agian zerbait lortuko genuke.

Gazteok kalean ere bakoitza bere kuadrilari begira bizi gara. Taberna zuloan sartu eta ez gara herrira irekitzeko gai. Faltan botatzen dut herriko gazteok kuadrila ezberdinetakoak izanik, elkarlanean aritzen ikustea: ekintza bat antolatzeko, aldarrikapenak egiteko, gai ezberdinei buruzko iritzia elkartrukatzeko, afizio komunak garatzeko... Gainera herriko festak ez dira oso partehartzaileak, eta hori gutxi balitz, gazteontzako egitaraua oso murrizta da. Gutxienez herri bazkariak, joku partehartzaileak, eta azken batean gazteok elkarrekin dibertitzeko ekintza ezberdinak planteatuko balira... agian zerbait lortuko genuke.

Kultur mailan ere eskaintza aldetik oso maila baxua dago. Gustuko kultur ekitaldiak ikusteko alboko herrietara mugitu beharrak kezkatzen nau. Musika aldetik nazkatua nago betiko musika berdina entzuteaz, musikari berriak ezagutu nahi nituzke zuzenean. Euskal kultura, gure kultura, ezagutzeko baliabideak eduki nahiko nituzke. Nire kezka kulturalak asetu nahiko nituzke. Niri interesatzen

zaizkidan kontuen inguruko informazioa bilatzea kosta egiten zait. Eta zer esanik ez, informazio honi buruz eztaba- da sortu eta gaian sakontzea. Gutxienez musika estilo ezberdinetako kontzertuak, helduentzat bertso eskola, euskal dantza tailerra, literatura tailerra, mahai inguruak, liburutegi alternatiboa egongo balira... agian zerbait lortuko genuke.

Hau guztia aurrera eramateko azpiegitura egonkor baten beharra ikusten dut. Kolore guztietako ideiak bilduko dituen puntu esanguratsu baten falta nabaria da, baita gazteon artean ere. Material zein ideien almazen izango den espazioa plurala. Edonoren ideiak sortu, gorde eta erakusteko txoko bat. Gure aldarrikapenak hazi eta

heziko diren kabia. Gure ametsak egi bihurtuko diren ohea. Gazteon olatua lehertuko den hondartza. Gutxienez gazte- txo duin bat egongo balitz... agian zerbait lortuko genuke.

Badakit utopia bat ari naizela marrazten. Baina badakizue, gaztea beti ameslari. Aldaketak egi bihurtu aurretik amestu egin behar baitira. Herria ez du pertsona batek aldatuko, baina hemen doa nire hondar alea. Alez ale sortzen baita hondartza.

Zumaian, 2005eko azaroan
Zumaiako gazte bat



ZUGAren 5. urteurrena

Bertso saio batekin hasi, eztabaidatzetik pasa eta kontzertu batekin jarraitu arte, guztiontzat kabida izango duen egitaraua antolatuko du Torreberri Gaztetxean Zumaiako Gazte Asanbladak bere urteurren ospakizunaren baitan, azaroaren azken aurreko asteburuan (20-21). Iritsiko zaizue gonbitea!

5 urtek askotarako eman digute, hondar alez hondar ale zerbait lortu dugulako.

**AMESTEN GENUEN, LORTU DUGU.
AMESTEN JARRAITUKO DUGU!**

Beñat Lizeagaren atxilotze saioaren kontrako erreakzio zabala

Grande-Marlaska Auzitegi Nazionaleko epaileak Segiren aurka agindutako operazioaren barruan, Beñat Lizeaga gaztea atxilotzera etorri, eta haren etxea eta Torreberri gaztetxea miatu zituen Espainiako Poliziak joan den irailaren 22an. Beñat ez zuten etxean aurkitu. Polizia operazioak kontrako erreakzio zabala eragin zuen herrian. Manifestazio jendetsuak batetik, Udalaren mozioa bestetik, eta herritar askoren haserrea eta animo mezuak Lizeagarentzat eta bere familiarentzat. Gaiari buruzko informazioa, Udalaren mozioa, senideen idatzia, Gaztetxeko kideena, Ezker Abertzalearena, beste zenbait talderena eta herritarren iritzi eta erreakzioak webgunean aurkituko dituzue. Hemen irakur dezakezue Zumaiaiko Udalak plenoan onartutako mozioaren pasarte bat:

Honekin batera, Polizia Nazionala, Beñat Lizeaga atxilotzera etorri zen Zumaia, bere etxea eta Torreberri gaztetxea miatu zituzten. Gogor salatu nahi dugu, miaketa unean poliziek izandako jarrera bortitza. Onartezina da, bere burua demokratikotzat jotzen duen estatu batean, goizeko hiruretan atea bota eta modu basatian etxe batera sartzea, senideak jazaritzea eta herritarren oinarrizko eskubideak erretara bortxatzea.

“Beraz, Zumaiaiko Udalak, osoko bilkuran honako hau onartu dezan, mozio hau aurkezten dugu:

1.- Euskal Herrian ireki den prozesua garatzen eta finkatzen laguntzeko konpromisoa erakustea. Prozesu hori, bide politiko, demokratiko eta baketsuetatik normalizazioa eta bakea iritsita amaituko da, eta bitartean prozesua oztopatzeko ahalagin guztiak salatuko ditugu datozen lekutik datozela ere. Era horretan, ETari eta Espainiako Gobernuari eskatzen diegu, bortxakeriarik gabeko agertokia bermatu eta arian-arian normalizazio politikoa iristeko behar diren erabaki eta ekimenak har ditzatela.



2.- Ikasle Abertzaleak eta Gazte Independentistak taldeetako kideen atxilotetak berariaz salatzea. Biak ere Gazte Herriako partaide dira, hau da, Gernikako Akordioa sinatu zuten erakundeetakoak eta euskal agertoki politiko berria finkatzen inplikaturakotakoak. Era berean, Udal honek elkartasuna adieraztea atxilotuen familiei.

3.- Atxilotutako pertsona hauek jasan duten inkomunikazio egoera erauzi dadila, zigorgabetasuneko espazio ilunak sortzen dituelako eta horrek torturak eta tratu txarrak errazten dituelako. Era berean, tortura eta tratu txarren prebentzioarako neurriak sistematikoki ezar daitezela, bereziki, atxiloteta instalazioak etengabe bidezko zaintza egotea eta atxilotuek aztertuko dituen medikua aukeratzeko modua izatea.

4.- Herritarrei dei egitea egoera salatzeko deitu diren mobilizazioetan parte har dezaten.

5.- Mozio honen edukia Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko taldeei, lehendakariari, Nafarroako Gobernuko presidenteari, Espainiako Barne ministroari eta Espainiako Gobernuko presidenteari helaraztea”.



Lagun bati eskutitza

Doinua: "Habanera"

1. Kaixo Beñat lagun maite:
Zein da zure sentimena?
Burutik ezin dut kendu
zure azken oroitzapena.
Perretxikoen artean
gaztetxean genbilena.
Oroitzen dut mendirako
plana egin genuena:
goizean perretxikoak
bildu basoan barrena,
mendian bazkaldu eta
frontoira joango ginena.
Ia sentitu genuen
egun haren gozamina.
Ta orain gozatu ezina
da sentitzen dudana dena.

2. Urriaren hogeita bi
a zer nolako eguna.
Zoritxarrez betirako
gogoratuko duguna.
Dramak goiz-goizetik zeukan
hain aurpegi ezaguna.
Esnatzerako begitan
neukan tristuraren bruma,
beldurra usaintzen nuen
eta zoritxarra susma.
Notizia izan baitzen
ohetik jaiki ninduna.
Pertsiana igo nuen
bilatuz argitasuna
ta hala ere guztia
ikusten zen hain iluna.

3. Unibertsitaterantz
pauso azkarra, abila,
hamabost minututako
paseo gogor, isila.
Nahiz malkoa etortzen zen
sarri begiaren bila,
nola hala ixten genun
tristuraren leihatila.
Non, nola eta zeinekin
ote da gure mutila?
Internet zen erantzunik
gabeko notizi pila.
Nola ote dago jendea,
familia ta koadrila?
Sekula ez naiz sentitu
infernutik hain hurbila.

4. Zumaiara bueltatzea
besterik ez nun buruan.
Trenean, autobusean
edo behar zen moduan.
Azkenean lortu nuen
eta modu seguruan."
-Eskerrak hortan lagundu
zenidatenei orduan.-
"Iritsi ta Nikolera
sartu ginen segituan.
Han hasi ginen elkartzen
lagunak mahai inguruan.
Elkarren babes goxoan
ta elkarren sostenguan
zurekin elkartu ginen
oroitzapenen munduan.

5. Koadrila da itsasoan
galduta dagon batela.
Zu zarelako ontzia
zuzentzen dun marinela.
Herriak ere hartu du
horren itxura goibela.
Kolpetik ailegatu da
udazkena ta orbela.
Zurekin egon nahi dugu
zurekin pasa tunela.
Ziur baikaude aurrean
berriro argitzen dela.
Ta zinez sentitzen dugu"
-Begia daukat umela.-
"ondoan ezin egona
zu egon zaren bezela.

6. Berriz elkartuko gara
asteburuz asteburu.
Gure artean zaudela
pentsatzen segiko dugu.
Zu berriro ikustea
da amets eta helburu.
bihotzez zurekin gaude
hortaz ez izan apuru.
Besarkada erraldoi bat
ere bidaltzen dizugu,
zaintzazu zeure burua
mantendu zaite seguru.
Ametsak berriz batera
ziur beteko ditugu.
Oso harro gaude zutaz.
Asko maitatzen zaitugu.





‘MOTXO’-REN ISTRIPUA:

GERTAEREN KONTAKIZUNA ETA ZENBAIT GALDERA



TESTUA ETA ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Hauxe duzue ostegun goizetik gure begiekin istripuaren lekuan bertan ikusi ahal izan dugunaren kontakizuna. Era berean, bidean sortu zaizkigun galdera batzuk ere plazaratu nahi izan ditugu.

Azaroak 4, osteguna

Goizaldeko 5ak dira. Bermeoko *Motxo* arrantzontziaren larrialdi deia iritsi da Bilboko Itsas Salbamendurako zentrorra. Zumaia eta Deba arteko harraldean, Baratzazarraurrean, hondoa jo eta arriskuan daude eskifaia osatzen duten bederatzi arrantzaleak. Handik gertu zeuden dozena bat arrantzontzi izan dira iristen lehenak, baina ezin izan dute ezer egin, gehiegi hurbilduz gero haitzen bat jotzeko arriskua dutelako. Iritsi da Salbamendurako zentroak bidalitako laguntza. Santanderko Helimer 212 helikopteroarekin atera dituzte bederatzi arrantzaleak, zortziak aldera. Denak onik daude.

Motxo arrantzontzia, baina, harraldean gelditu da kateaturik, ez atzera ez aurrera. Deposituetan 15 tona erregai ditu, eta sareak haitzean zabaldua gelditu dira. Arrantzontzia handik nola atera da orain kezka.

Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko kontseilariorde Raul Fernandez Arroia istripuaren lekura iritsi da, eta hantxe eman ditu lehen azalpenak, *Baleike*ko kazetariak egindako galderei erantzunez: “Sareak botata zituen eta arrantzan ari ziren”, esan digu Barne Saileko kontseilari ordeak

“Sareak botata zituen eta arrantzan ari ziren”, esan digu Barne Saileko kontseilari ordeak

Goizeko bostetan eman dute alarma eta 08:00etan helikoptero batekin erreskatatu ditugu eskifaiaiko kide guztiak. Orain gure kezka nagusia da arrantzontzia lehenbailehen ateratzea inolako isurketarik eragin gabe. Izan ere, 15 tona gasolio ditu deposituan eta hemen hondoa oso arriskutsua da, haitzek kroskoa zula dezakete. Kontuan hartu behar da babestutako eremu batean gaudela. Beraz, kontu handienarekin egingo dugu maniobra”. Sareak botata eta arrantzan. Barne Saileko kontseilariordearen hitzak dira. Arrantzontziaren jabeak, patroiak eta arrantzaleek oso bestelako bertsioa eman dute: Pasaia bidean zihoazela, olatuen kolpeek ezustean harrapatu dituztela, olatuetako bi besteak baino bortitzagoak izan direla, ontzia okertu eta sareak galdu dituztela, eta sarea ontziaren ardatzean korapilatu eta motorra indarrik gabe gelditzean olatuek harralderaino eramanez dutela arrantzontzia.

15:00etan da itsasgora eta orduan saiatuko omen dira arrantzontzia itsasoratzeko. Bitartean, ordea, *Motxo* ehun bat metro gorago ekarri dute urak eta olatuek, ia labarren pare-raino. Plana haxe da: *Motxo* atontzi bati lotzea soka batekin, eta itsasorantz tira egitea. Baina soka lotzeko modurik ez dago. Helikoptero batetik saiatu dira, baina ez da posible. Arrantzontziak bertan pasa beharko du gaua, sabelean 15 tona erregai dituela.

GALDERAK

- *Motxo* kostatik gertuegi ari zen arrantzan edo Pasaia bidean zihoala izan zuen istripua?
- Zergatik ez zuten aprobetxatu goizeko itsasbehera, artean *Motxo* harraldean beherago zegoenean, erreskatea saiatzeko? Edo gutxienez, hurrengo egunean egin bezala, soka batekin atontzira lotzeko?
- Aseguru-etxea istripuaren lekura iritsi eta lanean hasteko adostasuna eman arte zain egotea erabaki al zuen Jaurlaritzak? Aseguru etxearen oniritzirik gabe lanean hasiz gero ontziaren jabeak kalte ordaina galtzeko arriskua zuelako, agian? Interes pribatuak al dute lehentasuna larrialdi batean?





BALEIKE +

Azaroak 5, ostirala

Goizean goiz hasi dira Itsas Salbamendukoak eta aseguru etxeko langileak erreskate saioa prestatzen. Helburua: itsasoan dagoen atoiointzia eta *Motxo* soka bidez lotzea, gero, itsasgoran, tira eginez harraldetik ateratzeko. Uretako moto baten laguntzarekin eta langileak uretan gerriraino sartuta, azkenean lortu dute. Operazioko arduradunak eta politikoak itxaropentsu agertu dira, itsasgorarekin azkenik *Motxo* salbatzeko aukera izango dela uste dute. Erregaiarekin ez dute ezer egin, deposituetan segitzen du.

15:40an, itsasgorarekin batera, ziren saiatzekoak, baina maniobra aurreratu egin da. Lekukoak harri eta zur gelditu dira: olatuek ontzia mugitzen dutela ikusirik edo, 14:00ak aldera atoiointzia tiraka hasi da, arrantzontziak artean hondoa jotzen duen arren. *Motxo* irauli eta ababor aldera etzanda gelditu da. Atoiointziak tiraka jarraitu du hala ere, eta soka eten egin da. Eta, segidan, okerrera gertatu da: erregaia isurtzen hasi da. Eta isurketari aurre egiteko baliabide guztiak Zumaiaiko portuan. Operazioa 15:40an hastekoa zenez... Atoiointzia tiraka ari zen bitartean, kirol portutik ontzi azkar bat abiatu da istripuaren lekurantz. Politikariak, kazetariak eta argazkilariak daramatza. Erreskate arrakastatsuen irudi onenaren bila doaz. Iritsi dira Baratzazarraurra. Ohartu dira gertatutakoaz. Ziztu bizian eman dute buelta, berriro porturantz. Argazkirik gabe gelditu dira.

Operazioa zuzentzen ari diren teknikariei egokitu zaie azalpenak ematea: “Horrelako maniobrak oso zailak dira, hamarretik bederatzi gaizki ateratzen dira; zorionez, bederatzi arrantzaleak onik daude eta hori da garrantzitsuen”. Eta Erregaia? “Gasolia oso erraz lurruntzen da eta kaltea ez da hain larria izango. Gainera, hesiak eta bestelako neurriak prest ditugu isurketari eusteko”.

*Motxo*k bigarren gaua pasa beharko du harraldean. Okerrena da erreskaterako pentsatua zegoen planak huts egin duela, ontzia orain etzanda gelditu dela, eta inork ez duela handik ateratzeko modurik ikusten. Hala ere, arduradunek diote hurrengo goizean berriro saiatuko direla.

Atoiointzia
tiraka hasi
da. *Motxo*
irauli egin da
eta segidan
erregaia
galtzen hasi da

GALDERAK

- Zergatik ez zuten aurrena erregaia atera? Isurketa arriskua ekiditeaz gain, arrantzontziak 15 tona gutxiago pisatuko zuen...
- Erreskatea itsasgorarekin batera saiatzekoak baziren, zergatik hasi zen atoiointzia tiraka ia bi ordu lehenago?





Azaroak 6, larunbata

Goizeko 10:00ak dira. Gaur ez dago politiko eta arduradunen arrastorik. Alde egin dute. Kazetaririk ere ez, apenas. Jakin-minak bultzatuta, ikusmiran dabilen jendea gerturatu da gaur, batik bat. Galarretatik behera, garabidun kamioi bat ikusi dugu. Beherago, Baratzazarretan, poleadun ibilgailu bat. Kablea botata dauka harraldera. Aldundiko lantaldea da, eta sarea atera nahian dabilta. Kablea motzegia dela eta soka bat lotu behar izan diote sareraino iristeko. Baina nahi baino gehiago ari zaie kostatzen: poleadun ibilgailua kabletik tiraka hasi denean, sarea haitzetan kateatu eta soka eten egin da, bortizki gainera. Hiru aldiz gertatu zaie, eta susto txiki bat ere izan du han begira zegoen gazte batek.

Handik metro gutxira dago *Motxo*, harri gogorraren gainean etzanda. Istripua izan zuenetik haitzean egindako bidearen arrastoa jarraitzen ez da zaila: brankadetako hortz zorrotz birrinduei jarraitu besterik ez dago. Inguruan dituen langileak behaketa lanetan ari dira, baina beste erreskate saio bat prestatzeko lanik ez dira burutzen ari. 3.000 litro gasolio baino ez omen ditu sabelean. 12.000 isuri ditu, beraz. Eta ondorioak bertarik bertara suma daitezke. Putzuak kutsatuta daudela salatzen dute erregaiaren kolore biziak. Gutxienez, Pikoteazpirainoko tartea harrapatu du gasolioak.

Amore eman dute. *Motxo* bertatik ateratzea ezinezkoa dela erabaki dute, eta bertan geldituko da. Bertan desegitea omen da gelditzen den irtenbide bakarra, eta nola egin aztertuko omen dute astelehenerako deitutako bileran. Erabakia hartzerako ez ote die itsasoak aurrea hartuko... ■

Amore eman
dute. 'Motxo'
bertatik
ateratzea
ezinezkoa dela
erabaki dute

GALDERAK


- Nork hartuko du bere gain erreskate operazioan hartutako erabaki okerrean erantzukizuna?
- Halakorik berriro gerta ez dadin hartu beharreko neurriak hartuko al dira?



BISITARI OLDEA WEBGUNEAN

Istripuari jarraipen zabala eskaini diogu www.baleike.com webgunean. Uneoro eman dugu gertaeren bilakaeraren berri, argazkiekin osatuta. Zabalkunde handiagoko medioetan ere izan du oihartzuna gure lanak (Hitza, Berria, ETB1, Sustatu.com, Zuzen.com...), eta horrek guztiak bisitari oldea ekarri digu. Ostegunean, istripuaren egunean, 1.033 bisitari izan genituen, 1.266 ostiralean eta 1.556 astelehenean, inoizko kopururik altuena.





EGOKI



*Erloju
eta bitxi denda*

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787

ekin
elektronika, s.l.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaiá tel. 943 143 097
ekin@ekinl.com www.ekinl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



Erribera, 8 tel. 943 861 694



**ERNTO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045



ERROTA
OPIL-OKENDEGIA
SANTILLO AZOIA, 32
20750 ZUMAIÁ
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
erota@erota-okindegia.com

**NORTASUN-AGIRIENTZAKO
ARGAZKIAK**

10
Minutuan



ERTZ informatika
Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

FARMA ZUMAIA
Parafarmazia • Belar-denda
Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK

- Ume eta haurrentzat, dietetikoak, kosmetikakoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dietista, Naturapala, Indoklogia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutas), Kirokintzako, Laxatzaileak, Estimulante, Antzizetaren, Buruko minen, Zirkulazio arazoak... kontrakoak, Akupuntura, horietatik eta horietatik gabe.

BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIÁ

Galdona



burdindegia

Mendado manilla, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Garroa
kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA



Era gutxiatoko instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



GOIKO TABERNA

Erribera, 9 tel. 943 861 391

GOFI
Gazte
Surf

Baltasar Etxabe, z.g.
tel. 943 860 959

SPOT
SURF
DENDA

Ortega y Gasset, 2
tel. 943 860 768

OUTLET

%50
%60
%70

Aita Mari
(postetxearen aurrean)

Gure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiá
Tel.: 943 86 09 70

English School

Harvest

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

API

Ibaitain
inmobiliaria

Ricardo Azkue
API 399

Txomin Agirre 4, beheak
tel. 943 862 651
faxa 943862748

riazcue@euskalnet.net

TRAGEDIA BATEN KRONIKA

1960ko azaroaren 15ean olatu batek zazpi gazte eraman zituen Zumaiaiko barran. Bakarrak salbatu zuen bizitza. Egun hartan gertatutakoaren kronika egiteko eskatu diegu tragedia gertu-gertutik bizi izan zuten bost laguni: Jesus Mari Arano eta Augusto Egaña barran ziren beste zazpi lagunekin, baina olatutik babestea lortu zuten; Rudi Holkek bere bizia jarri zuen arriskuan Jose Maria Domingo Regalado uretatik ateratzeko; Javier Carballok eta Victor Zubizarretak oso gertutik bizi izan zuten guztia.

TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA ETA
JAVIER CARBALLOREN ARTXIBOA

ERREPORTAJEA



► HIRU PROTAGONISTA

Augusto Egaña, Rudi Holke eta Jesus Mari Arano, istripua gertatu zen lekuan.

1960ko azaroaren 15a. Asteartea. Egun batzuk badira itsasoa zakar samar dabilela. Itsasontziak portuaren babesean gorde dira. Urola ibaia ere indartsu dator, euri-teek hauspotuta. Herriko haur eta gazteek amaitu dute goizeko eskola saioa. Bazkalordua da.

Victor Zubizarreta: Nik 13 urte nituen. Eskolatik irten eta bizikletan abiatu nintzen etxera, bazkaltzera. Gogoan daukat Azpeitian azoka eguna zela. Pedro Mari García, *Sevillanoa*, estaziora joan zen amaren bila. Azokara joaten zen ama. Akordatzan naiz bidean gurutzatu eta elkar agurtu genuela. Sevillanoa ikusi nuen azken aldia izan zen.

Jesus Mari Arano: Gogoan daukat egun hartan lentejak bazkaldu genituela. Gero jolastera joan ginen. Poto-potoka jolasaren sasoia zen orduan. Eskuineko eskumuturra igeltsuarekin lotuta neukan, eskolako tailerrean behatz batean min hartu nuelako. Jolasten ari ginela, norbaitek komentatu zuen Begoña itsasontzia ateratzekoa zela. Bozinak ere entzun genituen. Haraino oinez joateko gogorik ez eta Augustok eraman ninduen bizikletan, ni parrillan eserita. Bizikleta berde bat zen. Parolera bidean jende asko aurreratu genuen. Egun batzuk bazeramatzan itsaso handi samarrarekin, eta ikusmina sortu zuen Begoñaren irteerak. Barraren puntaraino joan ginen eta bertan utzi genuen bizikleta.

“Olatua
pasa zenean,
ingurura
begiratu
eta han ez
zegoen inor”

Orduan ez al zegoen hesirik barraren hasieran?

Victor Zubizarreta: Ez, ez, lehen ez zegoen ezer. Larunbatean, eskola profesionaletik atera ginen laurak aldera, eta olatuekin jolasean ibili ginen barran bertan. Barran gora eta behera ibiltzen ginen, olatua zetorreanean paretaren kontra babestuz. Hori larunbatean, istripua gertatu baino hiru egun lehenago. Beraz, egun batzuk baziren itsaso txarrarekin.

Javier Carballo: Begoña itsasontziaren kapitain Constantinok nola edo hala irten nahi zuen portutik, egun asko zeramatzalako barruan, eta buruan sartu zitzaion kosta ahala kosta irten beharra zeukala. Lagunek ez irteteko aholkatu zioten, itsaso txarra zegoela, baina hark baietz. Eta irten, irten zen.

Nolako itsasontzia zen?

Javier Carballo: Zamaontzia zen, Ingalaterran egindakoa. Zumaia ikatza eta bestelako gaiak ekartzen zituen eta hemendik zementua eramaten zuen. Ehundik gora tona garraia zitzakeen. Zumaian sartzen zen zamaontzi ederrenetakoa zen. Txapazkoa. Hori bai, galdararekin funtzionatzen zuen, ez zuen diesel motorrik, eta horrek asko mugatzen zuen maniobrak egiteko orduan.

Olatua ezustean

Jesus Mari Arano: Augusto eta biok barraren aurrealdera iritsi ginenean ordurako beste zazpiak han zeuden, eta atzerago ere beste batzuk gelditu ziren. Gogoan daukat gu iritsi ginenean zorua artean lehorra zegoela. Ordura arte ez zen olaturik pasa



barra gainetik. Eta hori oso gogoan daukat, Victorrek esan duen bezala, askotan jolasten ginelako olatuekin, eta ondo genekien olatuak non jotzen zuen eta non ez.

Bada, Itsasontziari begira geundela, olatu handi bat etortzen ikusi nuen, barraren aurrealdetik. Barraren petrila gainditu zuen, artean lehertu gabe. Ni ohartu nintzen gure gainera zetorrela eta hormaren kontra joan nintzen. Augusto eta hormaren kontra babestu zen. Sekulako ur-jauzia izan zen. Ikaragarria. Olatua pasa zenean etxeko errieta bakarrik nuen buruan, blai nengoelako. Ingurura begiratu eta han ez zegoen inor. Augusto eta biok, eta bizikleta lurrean botata. Eta eskolako liburuak eta koadernoak han hemenka, uretan flotatzen. Erriora begiratzera joan eta bizikletaren estropezu egin nuen. Oraindik barran zegoen urak ia eraman ninduen... Eskerrak Augustok heldu ninduen. Zutitu eta orduan ikusi genituen lagunak erriean, olatuak eramanda. Nik orduan sei kontatu nituen. Horrek esan nahi du zazpietako bat ez zela ur-azalera ateratzeko gauza izan. Bat odoletan ikusi nuen, buruan kolpea hartuta. Eta handik minutu gutxira seietako bat hondoratu egin zen.

Gogoan nuen barran bertan, txapazko ate batek babestutako zulo batean, soka batzuk eta flotagailu bat egoten zirela. Hara joan ginen saltaka, baina hutsik zegoen. Ordurako korrontek hondartza aldera zeramatzan lagunak, haitzetara. Pentsatu genuen Parolera joatea laguntza bila, baina Talai-pe parean ez ziguten berriro barra aldera pasatzen utzi. Etxera bidali gintuzten.

Augusto Peña: Niri iruditu zitzaidan olatuak barran jo eta altura

dezenete hartu zuela. Ur masa ikaragarri hura etorri zitzaigun gainera. Gu biok hormaren kontra babestu ginen. Ur-jasa ura pasa zenean ikusi genituen lagunak uretan, eta orduantxe ikusi nituen Begoñaren helizeak ere. Olatuek dantzan zebilkiten itsasontzia, gora eta behera horietan helizeak bistatzeraino. Baina dena oso azkar gertatu zen. Jesus Marik esan duen bezala, handik etxera bidali gintuzten eta gero eskolan bildu ginen.

Jaxinto Agirrezabalaga, Inazio Atxega, Pedro Maria Garcia, Tomas Mendizabal, Domingo Regalado, Manuel Victor Urbieto eta Manuel Martija ziren olatuak barratik eramandako zazpi gazteak. Diotenez, Inazio Atxega izango zen ur-azalera atera ez zena.



▶ OROITZAPENAK

Barran bertan hasi dira bost elkarriketatuen solasean.

Ezkerretik hasita: Javier Carballo, Rudi Holke, Augusto Egaña, Victor Zubizarreta eta Jesus Mari Arano.

▶ BARRA 1960AN

Airetik hartutako argazki honetan ederki ikusten dira barra, Santiago hondartza, eskoilera eta Maia haitza. Goiko argazkian, Begoña zamaontzia. 1966ko urriaren 21ean hondoratu eta marinela guztiak hil ziren.



Idoia
Moda denda
Andreagaitan espeziagliztarik

Julio Beobide, 2 beheak Tel. 943 86 03 01
idoimamaia@gmail.com

Jimena

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

IRIONDO JATETXEA

Txikiardi
auzoa
Tel.
943861390
675715017

Gure espezialitatea:
arrainak eta baragia parrillan

IRUITZ

Ileapaindegia Mistoak

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

**ITSASKI
SUPERMERKATUA**

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
Aroztegia

Ateak, leihoak, teilak, armairu errotatutak...

Itzurun Zuhazbidea, 2 beheak
Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI ZUMAI

943 862 083

KABI Pasaia Etazarreta, 15
943 117 427

TABERNA

JUARI
jateketa

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basendi-azategia, 10 tel. 943 861 853

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTH-rekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari

Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

Kresala
Taberna

Julio Beobide 3, tel. 943 019 869

kuttun
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936

Larraitz ile-apaindegia
gure leku onak zuretzat

Basendi-azategia 5 beheak
Zumaia
tel.: 943 14 30 41

mala

MAITE
ILEAPAINDEGIA

Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



► ZAZPIKOTEA

Olatuak uretara botatakoak: goitik eta ezkerretik hasita, Jacinto Agirrezabalaga, Inazio Atxega, Manuel Martija, Manuel Urbieto, Tomas Mendizabal, Pedro Maria Garcia eta Domingo Regalado. Domingo Regaladok baino ez zuen bizitza salbatu.



Erreskate saioak

Javier, zuek Parolean bizi zineten orduan. Gazteei laguntzen saiatu ziren lehenengotakoak zuen aita Matias eta anaia Juan izan ziren.

Javier Carballo: Anaia Juan ohean zegoen. Dentistarenean hagina atera zioten eta sukarrak jota zegoen. Amak leihotik ikusi zuen Begoña itsasoratzen. Gazteak ezin zituen ikusi, baina bai jende piloa Begoñari begira zegoela. Itsasontzia pasa zenean ohartu zen uretan zerbait zegoela. Pentsatu zuen Begoñak galdutako zama izan zitekeela, bidioiak edo. Baina segituan ohartu zen ezetz, besoak mugitzen ari ziren pertsonak zirela. «Juan, Juan! Begira!». Anaia ziztu bizian jaiki eta hura ikusi zuenean aitaren bila jaitsi zen. Baina aita ordurako barran zegoen, lagundu nahian. Aitak berak prestatutako flotagailu bat jaurti zuten uretara [*Anade eki-poa deitzen zitzaien*], baina alferrik. “Motoa, motoa!” esan zion anaiaik aitari. Lambretta gorria hartu eta Santiagora joan ziren biak, handik laguntzeko asmotan. Anaiaik, bi aldiz pentsatu gabe, arropak kendu eta salto egin zuen. Haitzetatik. Hanka sartze handia izan zen. Olatu batek haitzen kontra eraman zuen eta ebakia egin zuen zango batean. Oraindik orbaina nabaritzen zaio. Ezin izan zuen besterik egin. Orduan iritsi zen Rudi.

Anaiaik oso gaizki pasa zuen. Etxera joan zen eta ohera sartu zen, negarrez. Orduz geroztik, ez du inoiz istripuari buruz hitz egin nahi izan. Uste dut sentimendu garratz bat gelditu zaiola barrenean ezin izan zuelako ezer egin.

Rudi, istripua gertatu zenean zu etxean zeunden. Nola

ohartu zinen gertatzen ari zenaz?

Rudi Holke: Bazkaltzen ari ginen emaztea eta biok. Emazteak leihotik begiratu eta esan zuen itsasontzi bat ari zela irteten. Ezinezkoa zela erantzun nion, portua itxita zegoela. Baina hark baietz, eta gainera bere ustez jendea zegoela uretan. «Ez da posible», esan nuen. Prismaticoak hartu eta goiko terrazara igo nintzen. Eta halaxe zen: itsasontzia ikusi nuen eta jendea ere bai uretan. Begoñako marinela zirela pentsatu nuen, olatu batek eramanda. Barrara joatea erabaki nuen, laguntzera. Ero bat bezala, etxetik kalera jaitsi eta alboan lan egiten zuen Narciso Kortari deitu nion, nire kotxea, Isseta bat, matxuratuta zegoelako. «Narciso, Narciso, har ezak motoa eta goazemak barrara!». Bere Lambretta hartu eta han joan ginen biok, ziztu bizian. Gogoan daukat motoaren hankarekin zorua jotzen pasa genuela Zubitxikiko bihurgunea.

Barrara iritsi ginenean segituan ohartu nintzen handik ez zegoela zer eginik, errepede alderantz eraman zituelako korronteak. Motoa hartu eta Santiago aldera joan ginen, begiralekuraino [*Erdiko haitza, tunelaren parean*]. Han ohartu nintzen egoeraz. Uretan bakarra ikusi nuen [*Domingo Regalado*]. “Gazta” deitzen dioten haitzerantz nindoala kendu nituen arropak [*Erreketaitza ere deitzen zaio “gazta” delako harriari; Maia ere bai, mahai baten itxura duelako*]. Orduan ikusi nuen Juan Carballo, Javierren anaia, odoletan. Bere aita ere han zegoen eta mantelolar bat ere baietz uste dut. Haiek esan zidaten, behin eta berriro, sokarekin lotzeko, beraiek lagunduko zidatela uretatik irteten. Nik ezetz, baina azkenean kasu egin nien. Ia akabatu

nintzen... Soka nahikoa mehea zen. Gerrian lotu eta uretara egin nuen salto. Igerian nindoala enbarazu egiten hasi zitzaidan. Gaztearengana iritsi nintzenean, azkenengotan zegoen. Ura nahikoa hotza zegoen eta ur asko irentsi zuen ordurako. Metro batera-edo hurbildu nintzenean soka kateatu egin zen, haitzetan. Ezin nuen aurrera jo. “Soka madarikatua!” pentsatu nuen. Gazteak hain gertu ikusi ninduenean, bere azken ahaleginean hurbildu eta lepotik heldu ninduen. Begi haiek ez ditut sekula ahaztuko. Bere bizitza nire esku utzi zuen une hartan, borrokatzeari utzi zion. Olatu handi batek banandu gintuen, eta bera hondora joan zen. Ni bitartean sokaz libratu nahian nenbilen. Azkenean soka hanketatik ateratzeko gauza izan nintzen. Orduan joan nintzen *Dominguinen* bila, ur azpira. Aurreko egunetako euriteek ekarritako lokatzarekin eta olatuekin ez zen ezer ikusten. Baina senak gidatuta eta zorte apur batekin, gaztea topatu eta ateratzeko gauza izan nintzen. Dena azken segundoetan. Lehen ahalegin hartan aurkitu ez banu, akabo.

Ur ertzetik oso urruti al zeundeten?

Zer da urruti horrelako egoera batean? 20 edo 25 metro izango ziren. Nik sorospen ikastaro bat egin nuen gazte garaian, eta banekien jendea nola heldu behar zaion horrelako egoera batean: atzetik eta besoa lepotik pasata. Baina *Dominguin* kezaka igartzen nuen, ur asko irentsi zuelako eta ezin zuen arnasarik hartu. Orduan, lepotik heldu beharrean besotik heldu nion. Pixkanaka hondartzara hurbildu ginen eta halaxe atera nuen.

Konortea galduta al zegoen?

Konortea ez zuen galduta, baina azkenengotan zegoen. Gure aitak, emazteak eta han zeuden beste lagunek mantekin bildu eta medikuarengana eramane zuten. Errepidera igo nintzen, beste norbait ikusten ote nuen. Errepide bazterra jendez gainezka zegoen ordurako. Gogoan daukat han zegoenetako batek soka bat eskatzen zuela, haitzetara jaitsi eta beste gazteren bati laguntzeko. Baina hura erokeria zen. Orduan, guardia zibil bat gerturatu zitzaidan eta esan zidan gazteetako beste bat gelditzen zela bizirik, eta ateratzeko hura ere. Non zegoen galdetu nion. Oso leku txarra seinalatu zidan [*Erdiko haitza*], haitzetan, eta olatuek oso gogor jotzen zuten. Han ez zegoen inoren arrastorik eta ez zegoen ezer egiterik. “Ni hor ez naiz sartuko. Ez dut inor ikusten eta ez naiz suizida bat”, erantzun nion guardia zibilarri. Eta alde egin nuen”.

Itsasontzietatik ere saiatu ziren gazteei laguntzen, baina ezinezkoa omen zen.

Rudi Holke: Portuko praktikoa saiatu zen, eta Yeregi ere bai bere ontziarekin. Eta beste batzuek, baina ezinezkoa zen. Ezin ziren gerturatu, olatuengatik.

Victor Zubizarreta: Gogoan daukat Jaxinto Agirrezabalagaren aita bere ontzian ikusi nuela, zerbait egin nahian. Artean ez zekien bere semea zela uretan zegoen gazteetako bat...

Javier Carballo: Portu barruan zeudenak eskoileraren parera iristen ziren baina hor zuten muga. Ezin zuten aurrerago jo, bestela olatuek haitzen kontra eramango zituztelako. Eta gerturatuta ere, beste kontu bat da itsasontzi batetik pertsona bat erreskatatzea. Hori oso zaila da.

Eta hau guztia gertatzen ari zen bitartean, Begoña itsasontziak zer egin zuen?

Javier Carballo: Bertsio ezberdinak daude. Batzuek diote Begoñako marinelak sokekin saiatu zirela gazteak uretatik ateratzen. Baina hori ez da horrela. Hasteko, esan dugun bezala, ez zegoelako gerturatzeko modurik. Begoña barratik irteten eta 200 bat metrora gelditu zen, zerbait gertatu zela ohartuta. Baina haiek, ziurrenik, ez zituzten gazteak ikusi ere egin. Geldirik egon zen une batez, baina bere bideari jarraitu zion. Egia da Getariatik bi itsasontzi etorri zirela laguntzera, *San Agustín* eta *Cruz de Arno*.

Nik orduan Otto Holken egiten nuen lan. Barrara iritsi nintzenean nik pertsona bat baino ez nuen ikusi uretan, Arranaitzen parean, tunelaren ondoren dagoen puntaren parean. Nik uste dut Pedro Mari Garcia zela, *Sevillanoa*. Bada, Getariako bi itsasontzi hauek ez zuten inoiz gaintitu barrak markatzen duen muga. Branka Orroagara begira jarri zuten, eta barealdian aurrera egiten zuten, baina ez ziren barraren marra hori gaintitzen ausartu, olatuek eramango zituzten beldur. Arranaitzetik 300 metrora zeuden. Pentsa Pedro Mari zer distantziara zegoen sokekin laguntzeko... Nik, behintzat, horrela gogoratzen dut.

Hildakoen zerrenda

Itotako sei gazteetatik bost gela berekoak ziren. Seigarrenaren berri ez zen izan iluntzera arte.

Victor Zubizarreta: Olatuak eramandako denak, Martija salbu, nire gelakoak ziren. Arratsalde hartan teknologia, zientzia, matematikak eta marrazketa genituen. Ni eskolak hasi baino lehen joan nintzen gelara, teknologia ikastera. Eskolan geundela entzun genuen zerbait gertatu zela. Bizikleta hartu eta Parolerantz joan nintzen. Han egon ginen ikusten, irakasleek eskolara bidali gintuzten arte. Geletan sartu eta bakoitza bere lekuan eseri zenean, irakasleek zerrenda pasa zuten. Gurean Paco Iraolak. Baten izena esan, eta “presente” erantzuna. Beste baten izena esan, eta isiltasuna... Izenak esan ahala, arbelean apuntatzen zituen falta zirenak. Zerrenda amaitu zuenean, bost izen zeuden arbelean. Hori buruan iltzatuta daukat. Are gehiago: bostak nire inguruan eseritzen ziren. Bi ezkerreko ilaran, bat aurrean eta beste biak atzean...

Baina arratsalde hartan eskolarik izan al zen?



Ezkerrean, Rudi Holke eta Domingo Regalado. Eskuinean, Jesus Mari Arano eta Augusto Egaña hildakoen omenezko koroa eramaten.

Victor Zubizarreta: Ez, ez. Gurasoak etortzen hasi ziren semeengatik galdezka, eta laurak aldera-edo etxera bidali gintuzten.

Pedro Mari Garcia izan omen zen desagertzen azkena. Uretara eroritako zazpi gazte haietatik Domingo Regalado baino ez zen bizirik atera, Rudi Holkeri esker. Behin gorpuk desagertu zirenean, zer?

Victor Zubizarreta: Han arratsaldeko seiatarako ez zegoen ezer. Jende asko bai, begira, senideak bueltaka... Gainera, gaueko bederatzia arte ez zen itotako seigarrenaren berri izan. Ordura arte pentsatzen zen bost zirela itotakoak. Horren froga da hurrengo eguneko egunkarietan bost aipatzen direla. Manuel Martijarena ez zen jakin gauera arte.

Hori nola izan zen?

Javier Carballo: Manuel Martijaren anaia, Patxi, harekin omen zegoen barran. Baina beraiekin aurreraino joateko oraindik haurregia zela eta, barraren hasieran gelditzeko esan zion Manuelek. Patxi ikusi zuen gertatutakoa, anaia uretara bota zuela olatuak. Eskolara bueltatu zen baina han ez zuen ezer esan, ikusitakoarekin erabat jota. Arrebetako bat eskolara joan zen galdetzera bi anaiak han ote zeuden, eta norbaitek erantzun omen zion baietz, biak zeudela. Baina Manuel falta zen. Eskola amaituta, Patxi aitarengana joan zen, baratzerara. "Anaia non duk?" galdetu zion aitak. Orduan jakin zen.

Victor Zubizarreta: Hurrengo eguneko egunkaria aipatu dudala Nik garai hartan La Voz de España banatzen nuen. Lehen trenean jaso eta etxex etxe banatzen nuen. Sekula

ahaztuko ez zaidana da goiz hartan egunkaria jaso eta azalean bost lagunen argazkiak ikustea. 13 urterekin.

Lehen gorpua, astebetera

Desagertutakoen lehen gorpua agertzerako ia astebete pasa zen. Azkena, ia hilabetera azaldu zen, eta Pedro Mari Garcia Sevillano-ren ez zen sekula aurkitu. Horrek izugarri luzatuko zuen sufrimendua...

Javier Carballo: Kolpe handia izan zen herriarentzat. Ikargarria. Bat-batean sei haur horrela galtzea... Gogoan ditut jendearen eta, batez ere, senideen joan etorriak barrara, gorpuren bat agertuko ote zen esperantzarekin.

Niri buruan gelditu zaidan beste irudi bat da hurrengo gaue-takoa. Hasi Orroagan, Santiagon, Parolpean eta Katuplazaraino, argitxoaren erromesaldia ikusten zen. Kandilak hartu eta gorpuen bila zebilen jendea zen. Irudi hura ikaragarria zen. Gauez ibiltzen ziren, itsasbehera aprobetxatzeko. Akordatzon naiz koadrilak zebiltzala haitzetan, gorpuen bila. Joakin Zubeldia ordurako Zumaian bizi zen, eta hura oso trebea zen haitzetan atzera eta aurrera...

Eta badaukat oso barruan gordeta egun haietako beste une bat. Istripuaren ondorengo lehen gau hartan, denok lur jota geunden etxean. Anaia, ama eta ni neu. Baina aita falta. Parolaren behealdean zegoen tailer txikian zegoen. Amak esan zidan bila joateko, afaltzeko ordua zela eta. Aita lanean ari zen, tutu batzuekin eta alanbre zati batzuekin. Txamarta handi batzuk prestatzen ari zen [arrantzan erabiltzen den kako askoko amua]. "Zertan ari zara?" galdetu nion. "Zerraldoak

IÑAKI ZORITA UNANUE

Junta de salvamento quince de noviembre, 50 urte oroimenean liburua ren egilea

“Zumaiakoak izan ziren lehen sorosleak”

Iñaki Zorita (Zumaia, 1972) suhiltzaile da ofizioz. “Ez naiz kazetari, ez idazle, ez ikertzaile, eta ez nuen inolako esperientziarik honelako lanetan”. Baina ezin du disimulatu itsasoko salbamendua maite duela: galdera bakarra ia nahikoa izan da liburuari buruzko gorabehera guztiak etenik gabe kontatzeko. Badaki zertaz ari den, bera ere sorosle izan baitzen hainbat urtetan. “2007an hasi nintzen informazioa biltzen, eta ordutik nire denbora libre a lan honi eskaini diot. Batezbeste, hiru ordu egunean”. Musutruk egindako lana, bihotzetik atera zaiolako.

Zerk bultzatu zintuen liburu hau idaztera?

Ezkontza batean nengoen eta lagun bat etorri zitzaidan esanez salbamendu taldearen errotulazioa kendu egin zutela postutik. Nik banekien han komunak egitekoak zirela, baina ez izena kenduko zutenik. Hurrengo egunean joan nintzen ikustera, eta hala zen. “Junta de salvamento 15 de noviembre” izenaren arrastorik ez zegoen. Hori 2007an izan zen. Udal txerxa joan nintzen azalpen eske. Maria Eugenia Arrizabalaga zegoen artean alkate. Hark esan zidanez, Euskara batzordeak proposatu zuen kentzea, gaztelania hutsean zegoelako, edo bestela euskaraz ere jarri behar zela. Harrituta gelditu nintzen. Galdetu nion ba ote zekien zer esan nahi zuen izen hark, nondik zetorren, zer data zen hura. Ez zekiela erantzun zidan. Nik orduan nekiena azaldu nion, eta proposatu zidan gaiaren inguruko informazioa biltzeko eta idatziren bat prestatzeko. Horrela hasi zen liburu honen historia.

Zer iturritatik bildu duzu informazioa?

Udal artxibategian ezin izan nuen gauza handirik topatu. Artxibategiko dokumentazioa digitalizatzen ari ziren eta ia ez nuen kontsultatzeko aukerarik izan. Baina Gurutze Gorriko paper zaharren artean altxor ederra aurkitu nuen: salbamendu taldearen gutunak eta mota guztietako dokumentuak. Hortik abiatu nintzen. Gero, istripuari buruzko infor-

mazioa lekuko zuzenen bitartez jaso dugu. Lan horietan asko lagundu dit Javier Carballo.

Zer aurkituko du irakurleak liburuan?

Hiru zati nagusi ditu liburuak. Lehen atalean, 1960an Zumaia nolakoa zen deskribatzen dut, garrantzitsua iruditzen zitzaidalako ohartaraztea orduko egoera ez zela gaur egungoa. Bigarren atalean, 1960ko azaroaren 15ean gertatutako istripua kontatzen dut. Badakit batzuentzat mingarria izango dela hura gogoratzea, baina uste dut ezinbestekoa dela kontatzea benetan zer gertatu zen. Eta hirugarren atalean azaltzen da salbamendu taldea nola sortu zen, zeintzuk osatu zuten, parte hartu zutenen izenak, ekintza nagusiak, bitxikeriak... Horiek dira atal nagusiak.

Azaroaren 15eko istripuari erantzunez sortu zen salbamendu taldea. Eta aitzindariak izan omen ziren, ez baitzen halako beste talderik ezagutzen.

Azaroaren 17an, istripua gertatu eta bi egunera, bildu ziren Maria Pilar Beobide, Manolo Aizpurua eta Jose Maria Gutierrez Txetxu azken horren etxean, herri-tarrez osatutako salbamendu talde bat antolatzeko premia ikusita. Gero gehitu zitzaizkien Matias Carballo, Otto Holke, Eduardo Aquilino Zubia eta Miguel Manterola. Hori izan zen salbamendu taldearen abiapuntua. Eta esan beharra daukat hasieratik oso garbi izan zutela nolako taldea behar zen, zer baliabide... Eta aitzindariak izan ziren, Zumaia taldea sortu zelako Espainiako federazioa sortu aurretik. Inguruko herrietan antzeko talderik ba ote zegoen ikertu dut, eta ez zegoen. Ez Deban, ez Zarautzen, ez Donostian... Hondarribian mediku talde bat zegoen, baina ez itsasoan sorosle lanak egiteko prestatutako talde bat. Zumaia taldea izan ziren lehen sorosleak, Espainia osoan.

1961eko udan Zumaia taldeak hondartze-tan sorosleak zeuden, beraz.

Bai. Eta txostenetan jasota daude urte



hartan egin zituzten salbamenduak eta ekintzak. Esate baterako, abuztuaren 2an bi alemaniar atera behar izan zituzten uretatik Santiagon, abuztuaren 5ean Zumarragako gazte bat... Horrelakorik ez zegoen inon. Pentsa, Itsasoko Gurutze Gorria 1972an sortu zen. Zumaia taldeak salbamendu taldeak ordurako 11 urte zaramatzen lanean.

Hain zen bitxia, Jose Maria Iñigo kazetariak bere telebista saiora gonbidatu zituen...

Bai, Javier Carballo joan zen, 1967an edo. Harrituta zeuden nola egon zitekeen boluntario talde bat hondartzetan itsas salbamenduak egiteko prest.

Noiz arte funtzionatu zuen salbamendu taldeak?

Nik 1980an jarri dut amaiera data, baina Gurutze Gorriak eman zion segida. Urte askotan salbamendu taldea eta Gurutze Gorria, biak aritu ziren lanean Zumaian, koordinatuta. Baina 1981ean, legez, salbamendu talde guztiak Gurutze Gorriaren parte izatera pasa ziren. Egia da hurrezkero Gurutze Gorriaren izen garenok gehiago sentitu garela salbamendu taldeko kide, haien eskolak segida izan zuela Zumaian.

Liburua amaitu duzu, baina jarraitzen duzu informazioa biltzen, lekukotasunak jasotzen. Zer egingo duzu bildu dituzun dokumentuekin?

Hori Udalarekin hitz eginda dago. Material guztia alferrik geldituko da nire etxean. Hau dena artxibategian jasota geldituko da, eta edozeinek kontsultatu ahal izango du, digitalizatuta egongo delako. Eta oraindik informazioa jasotzen segituko dut bolada batez. Norbaitek bere lekukotasuna eman nahi badu, dokumentaturen bat edo beste zerbaite, gustura jasoko dugu. [harremant-jartzeko: js15nov@yahoo.es].

agertzen hasiko dira pixkanaka, eta haitzetatik atera ahal izateko”. Txamarta haietako batekin atera genuen, egun batzuk geroago, Parolpeko igerilekuan agertu zena.

Jesus Mari Arano: Lehen gorpuak agertu zirenean Augusto eta biok hilerrira joan ginen. Gorpuak han zeuden, eta ikustera. Ea norbait ezagutzen ote genuen. Guk ikusitakoak behintzat ez zuen ez bururik, ez eskurik, arroparik ere...

Handik urte batzuetara, Luis del Olmo kazetariaren deia jaso zuen Rudi Holkek. Domingo Regaladorekin, berak salbatutako gaztearekin, irratian zuzenean hitz egiteko aukera eskaini zion. Rudi Holkek ez zuen Domingoren berririk izan urtetan, eta ilusioa egin zion.

Rudi Holke: Donostiako estudioa eraman ninduten. Kasakoak jantzi eta Del Olmo hasi zitzaidan hitz egiten. Gertaeraz galdetu zidan, eta ondoren *Dominguin*-ekin hitz egiteko aukera izan nuen. Hura Sestaora ezkondu zen eta hango labe garaietan egiten zuen lan. Lau hitz egin genituen, oso lotsatuta zegoen. Gabonetan zorian gutun bat bidaltzeko eskatu nion eta horrekin gustura gelditu zen. Esan beharra daukat, istripuaren ondoren bere aitarekin etorri zela etxera eskerrak ematera. Orduan nire aitak lantokian ikasteko aukera eskaini zion, eta han egin zituen hilabete batzuk. Zorritzarrez, nahikoa gazte hil zen [1980ko azaroaren 24an].

50 urte pasa eta gero

Javier Carballo: Askotan galdetu izan didate, ezin ote zen zerbait gehiago egin... Azaroa zen. Hotz egiten zuen. Gazteak arropa astunekin. Ura, hotza. Ezustean, uretara... Ez zuten beren borondatez salto egin... Kolpeak. Trauma izugarria. Olatuen menpe. Zer egin ez zekitela... Azken hori oso garrantzitsua da niretzat.

Handik urte mordoakara, behin barran paseatzen nembilela, gaztetxo batekin egin nuen topo. Bera baino handiagoa zen surfeko taularekin zihoan barra puntara. Olatu handiak zeuden orduan ere. Nik, harrituta, nora ote zihoan galdetu nion. “Olatuetara”, erantzun zidan, lasai asko. Hori da historia. Munduak aurrera egin du. Gazte haiek gaurko surfarien esperientzia izan balute, agian salbatzeko aukeraren bat izango zuten. ■



JAVIER CARBALLO

SALBAMENDU TALDEAREN EKIMEN BATZUK

Iñaki Zorita

Informazioa bost hizkuntzatan

1962an istripuak ekiditeko hainbat aholku biltzen zituen esku orria prestatu zuen salbamendu taldeak, hondartzazaleen artean banatzeko. Informazioa bost hizkuntzatan idatzi zuten: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez. “Pentsa, orduan zenbat alemaniar etorriko ziren udan gure hondartzetara... Bada, hala ere, oso garbi izan zuten informazioa zabaltzea funtsezkoa zela. Gaur egun askoz atzerritar gehiago datoz gure herrira eta euskaraz bakarrik ematen dugu informazio hori. Ez du zentzurik. Soroslearen lehen lana da ezbeharra saihestea, eta horretarako informazioa ezinbesteko da. Guztiek ulertzeko moduan”.

Puntako ekipamendua

1962an Ameriketako Estatu Batuetako enbaxadorekin jarri ziren harremanetan, salbamendurako aparailu bat lortu nahi zutelako, Mayo hodia, hain zuzen ere. “Arnasketa errazteko ahotik sartzen den hodi bat da. 1958an asmatu zuten Estatu Batuetan, eta handik lau urtera zumaiaarak hura eskatzen ari ziren. Harrigarria iruditzen zait. Eta hori bezala, bozgorailuak, soka jaurtigailuak... Puntako ekipamendua lortzen ahalegindu ziren, ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko”.

Barran 11 hildako bost urtean

Zorritzarrez, 1960koa ez da izan barran gertatutako istripu bakarra. “1972an familia bateko hiru kide hil ziren itota, olatu batek eramanda. Horren ondoren erabaki zen hesia jartzea. Idatzi batean aurkitu nuenez, aipatutako hiru senide horiez gain, beste zortzi lagun ito ziren aurreko bost urteetan. 11 hildako hain epe laburrean”.



MOSAIKOA ZAHARBERRITZEN
1961ean Vicente Rodillak egindako mosaikoa jarri zuten istripuaren lekuan, oroigarri moduan. Denboraren poderioz, oso hondatuta zegoen, eta Rakel Nacenta ari da orain lanean mosaikoa zaharberritu eta berreskuratzeko.





Maluta
jatetxea • taberna

oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



Maxi
solarium
ileapaindegia
estetika

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 537 901

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Alta Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza



ETXEGINTZA
OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...
Tel. 647 040 156 / 686 911 257



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

636 887 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)
www.carroceriasnoia.com



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Indutrigunea, A1 - 4. pat. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostola@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide ibilbidea, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girotzea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



La Prima Vera
pizzeria

Alta Mari, 17, behea
tel. 943 247 011

EUSKAL BALEAZALEEN ARRASTOEN BILA

Haizeak bultzatuta, olatu gainean abaila batean doa *Beothuk* ontzia. Zazpi espedizionarioak belaren azpian, ontziaren popan makurtuta doaz, ahalik eta enbarazu gutxien egiteko. Ternuatik atera eta Labradorko Red Bay herri txikiaren bila doaz, hilabete eta erdi lehenago hasitako abentura

amaitu nahian. Eszena honekin hasten da *Apaizac obeto* dokumentala, izen bereko espedizioaren berri ematen duen pelikula. Urriaren 28an aurkeztu zuten Donostiako Aquariumean eta orain Mundu zabalera eramatea da helburua. Abentura ez da oraindik amaitu.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: APAIZAC OBETO



2006ko ekain eta uztaillean burutu zen espedizio hau. Quebec hirian ekin zioten bideari eta Labradorko Red Bay herritxoan amaitu zuten, XVI. mendeko baleontzi baten erreplikari 1.000 itsas milia (ia 2.000 kilometro) egin eta gero. 42 egun iraun zituen bidaia hartan Kanadako ekialdeko bost itsas probintzia zeharkatu edo ukitu zituzten: Quebec, New Brunswick, Nova Scotia, Ternua eta Labrador. Zazpi lagunek osatu zuten tripulazioa. Horietatik sei –bost arraunlari eta patroia– Albaola elkarteak kideak ziren: Ane Miren Miralles, Iker Leizaola, Marcos Sistiaga, Mottxu, Jon Maia eta Xabier Agote; zazpigarrena, berriz, Ternuako Mi'kmaq indigena bat izan zen: Aaron. Tripulazioko kide izateaz gain, espedizioaren kronista izateko asmoarekin hartu zuen parte Jon Maiak abentura hartan. Ez zuen esperoko, baina, urte batzuk geroago han gertatutakoa jasotzen duen dokumentalaren gidoi-laria eta zuzendaria izango zenik. Aurkezpen egunaren bezperan elkartu gara bidaiaz, pelikulaz eta etorkizunaz hitz egiteko. Urteak pasa badira ere, fresko mantentzen ditu buruan Kanadako ekialde basatian bizitakoak.

2006ko udan egin zenuten “Apaizac obeto” espedizioa. Denborak ematen duen distantziarekin, nola gogoratzen duzu bidaia hura?

Egia esan, ez dut aukerarik izan distantzia hori hartzeko. Etorri eta segituan liburua idatzi nuen eta gero urte eta erdi pasa nituen hitzaldiak ematen. 160 hitzaldi inguru eman nituen denbora har-

tan; oraindik ematen ditut noizbehinka. Etengabeko harremana izan dut Albaolakoeekin. Dokumentalaren prozesua ere oso luzea izan da: hasieran ekoizpen etxe batek hartu zuen eta hor korapilatu egin zen kontua; denbora dezentean egon zen ataskatuta eta azkenean Orio Produktzioak etxeak erosi zituen grabatutako irudiak. Hor sartu nintzen dokumentalaren zuzendaria eta gidoi-lari.

Zer asmorekin egin zenuten “Apaizac obeto”?

Albaola elkarteak eta Kanadako Gobernuak Parcs Canada erakundeak –Kanadako parke naturalak kudeatzen duen erakundea eta bere baitan itsas arkeologia departamentua duena– elkarlanean muntatutako ekimena zen. Erakunde horrek aurkitutako handiak egin ditu euskaldunen itsas ondarearen inguruan. Tartean, 1565. urtean ondoratutako *San Juan* galeoia dago: Pasaian egindako ontzi hori orain artean aurkitutako galeoi zaharrena eta baliotsuenetakoa da. Galeoiarekin batera, bost balea txalupa ere aurkitu zituzten Labrador eremuko Red Bay herrian, garai bateko euskaldunek Butus bezala ezagutzen zuten portuan. Elkarlan horretan, balea txalupa horren erreplika egin zuten Pasaian eta behin erreplika eginda, espedizioa egitea erabaki zen, XVI. mendean euskal balea arrantzaleek Kanadako Ipar Atlantikoan egiten zutenaren antzera, ia mende eta erdian balearen arrantzan egin zituzten leku eta bideak ibiliz, nabigazio arkeologikoa eginez, eta Haiek sentitzen zutena sentitzeko ahaleginetan.

Nola sartu zinen abentura honetan?

Deitu egin zidaten. Kronista bat nahi zuten, bai espedizioak irau-

ten zuen egunetan egunkarietan kronikak argitaratzeko (kronikak *Garan*, *Diario Vascon* eta *Berrian* aldi berean argitaratzen ziren as-tero) eta gero liburua idazteko. Tripulazioko kide ere izan behar nuen. Zerutik erorita bezala etorri zitzaidan dei hori. Gaia asko gustatzen zitzaidan eta umetan amesten dituzun abentura horietako bat bizitzeko aukera izatea bezala zen.

Esan daiteke, beraz, bidaia geografikoa eta kulturala izateaz gain, bidaia pertsonala ere bazela zuretzat.

Niri, neurri batean, bizitza aldatu dit abentura honek. Atzera bueltarik ez zuen oso esperientzia handia izan zen. Ez nekien ondo non sartzen nintzen eta inongo entrenamendurik egin gabe joan nintzen Kanadara arraunean egitera: egunean 8-10 ordutan egin behar zen arraunean. Eta ez hori bakarrik: gauero kalean egin genuen lo, jakin gabe noiz eta nora helduko ginen eta zer aurkituko genuen. Niretzat inkognita hutsa zen. Rol joko batean bezala sentitzen nintzen han. Askotan ez nuen lorik ere egiten; trantze batean bezala nenbilen. Derrepente beste bizitza batera pasatzea bezala zen, baita denboran atzera egitea ere.

Bizitza aldatu omen dizu. Non sumatu duzu aldaketa hori?

Batez ere itsas kulturarekin harreman zuzena izateko aukera izan dut. Zumaian eta Euskal Herrian, oro har, oso galduta dugun kultura da. Itsasoa esplotatzeko leku bat bezala ikusten dugu, bai arrantzan, baita turismo aldetik ere. Baina itsasoa ez da ikusten gure historia eta kulturaren putzu sakon bezala, gu zer garen ikusteko balio diguna. Kontzientzia hartzeko ere aukera eman dit, itsasoarekin harreman zuzena edukitzeko. Albaola elkartearekin hainbat proiektu eta hainbat gauzatan harreman zuzena izateko aukera ere eman dit: ia-ia egunero itsasoko gaietan murgilduta nabil orain. Ezinezkorik ez dagoela ere erakutsi dit honek, edo-

zein momentutan etor daiteke zure bizitzako abenturarik handiena. Nork esango zidan niri espedizionario bat izango nintzanik? Arrauna ikusteko beste modu bat ere eman dit. Hemen arrauna lehiara mugatzen da. Beste leku batzuetan, baina, arraunean egitea eguneroko kontua da. Familiako kultura da hemendik kanpora; hemen, berriz, federatu batzuen kontua da kasik. Izeberg baten puntarekin bizi gara, eta, gainera, pentsatzen dugu izugarria dela, benetan oso murrizta denean. Traineruan seniorretan aritu ez izanaren arantza geratu zitzaidan beti. Bidaia honetan sentitu nuen arantza hori atera nuela. Ba al dago estropada handiagorik euskal arrantzale mitiko haiek orain 500 urte ibiltzen zuten txalupa batean eta Ternuako ur basatietan arraunean bidaiaatzea baino?

Zer moduzkoa izan zen zazpi kideen arteko bizikidetzat?

Oso ona. Egunak pasa ahala, gero eta lotuagoak geunden. Hone-lako bidaia batean momentu eta esperientzia asko konpartitzen dituzu. Gauetan porturen batera heltzen ginenean lotarako leku bat aurkitu behar izaten genuen. Hori ez zegoen antolatuta eta inprobisatu egin behar izaten zen. Parke publikoetako kioskoetan egin izan genuen lo, komun publikoetan, garabi handi batzuen azpian, txabola zahar batean... Manta bakar bat genuen eta horrelakotan pentsatzen duzu zer izango den kalean bizitzea eta egunero lotarako leku bat bilatu beharra. Eguzkia ere oso garrantzitsua zen. Euritan ere arraunean egin behar genuen, baina eguzkia ateratzen zenean izugarria zen. Hori dena baloratzen da. Baita haizea ere. Garai hartako arrantzale eta marinelen zat haizea dena zen. Haizeak eraman egiten zaitu eta atsedean har dezakezu edo zerbait jan. Haizea obsesioa bihurtu zen guretzat.

Behin portura helduta, inprobisatu behar izaten zenutela diozu, baina egun amaierarako portuak aurrez zehaztuta egongo ziren, ezta?

▼ ESFORTZUA

Bi tonako pisua zuen txalupa batean 1.000 itsas mila (ia 2.000 kilometro) egin zituzten 42 eguneko bidaian.



Bidea aurrez programatuta zegoen. Irten aurretik kalkulatzeko genuen egun hartan noraino heldu gintezkeen eta portuak non zeuden. Han ez da hemen bezala: tamainaz lurralde izugarria da eta portutik portura distantzia handiak zeuden, eta tartean ezer ere ez. Eguraldi txarreko egun batzuetan atzean utzitako portua 20 kilometroa zegoen eta hurrengo 30era. Horrelakoetan aurrera jarraitu beharra zegoen, beti aurrera. Kalkulatzeko ez zen erraza. Batzuetan uste baino gehiago egiten genuen, ehun kilometro ere bai belaz lagunduta, eta beste batzuetan arraunean 12 kilometro besterik ez.

Nahiz eta txalupa, arropa eta janariekin XVI. mendeko arraunlariak gogoratu nahi izan, pentsatzen dut gaur egungo teknologia ere eramango zenukela.

Bagenuen mapa bat euskaldun batek egina: Ternua eta San Lorenzo estuarioaren lehenengo mapa da, ziburutar batek egina Ternuako gobernadore frantsesak eskatuta. Mapa hura bagenuen, baita hark egindako lekuen deskribapenak ere, euskaraz. Oso polita zen haiek erabiltzen zuten ontzietan, haiek ailegatzeko ziren leku birjin haiek iristea eta haien begiekin eta perspektibarekin ikusi ahal izatea eta ikustea. “Kontxol, deskribatzen den lekua hau da”. Alde horretatik ahalegina egin genuen, baina bai, iparrorratza erabiltzen genuen eta GPSa ere

“Hemen itsasoa ez da ikusten gure historia eta kulturaren putzu sakon bezala”

bageneraman, batez ere arriskuak ekiditeko eta abiadurak kalkulatzeko, baita espedizioko datuak hartzeko ere.

Hainbat herritara heldu izana gogoratzen duzu. Zer harre-ra izan zenuten leku haietan?

Harritu egiten ziren. Soinean genituen arropekin hango supermerkatuetara ere joan izan ginen gauzak erostera; azken finean, XXI. mendeko leku batean genbiltzan: portuak lehengo leku berean daude, baina herri bihurtu dira. Jendeak haluzinatu egiten zuen; galdetu izan ziguten ea bikingoak ginen. Euskaldunak ginelatse ateetan, herri gehienetan bazekiten euskaldunak izan zirela aitzindariak herritxo haien historian. Itsas kultura handiko herria topatu genuen eta bere historiaren kontzientzia handia zuen jendea. Ipar Amerikaren historia oso berria da, 500 urte besterik ez ditu eta denek dakite etorkinak direla. Euskaldunen berri guk geuk baino gehiago zekiten. Hemen, Euskal Herriko portuetan, galdetuz gero, apenas jakingo luke jendeak zer historia dagoen gai honi buruz, baina han euskaldunak Kanadaren historia modernoaren aitzindaritzat jotzen dituzte. Horregatik eskaini genituen ehun elkarrizketa baino gehiago 42 egunetan. CNN telebista kateak zuzenean emititu zuen gure irteera, eta irrati, telebista, aldizkari edota prentsa beti genituen gainean elkarrizketak egiteko. Gero oso jende eskuzabala aurkitu genuen. Portura heltzean, genuen basati pinta izanda ere eta genuen kiratsarekin —ez ginen duxatu 42 egunetan, ez bizarra moztu, ezta ezer ere—, jendeak beren etxeetara eramaten gintuen afaltzera eta lotara. Jendearekin oso momentu hunkigarriak izan genituen. Lagun asko egin genituen bidean.

Ehundik gora elkarrizketa. Bada marka!

Euskal Herriari buruz egin genuen difusio kanpaina hori diru-

► IBILBIDEA

Quebecen, Kanadako hiri zaharrenean hasi zuten espedizioa. Ekialdeko bost itsas probintziak zeharkatu eta gero, Red Bay herrian amaitu zuten bidaia. Hango badian aurkitu zuten “San Juan” galeoia, XVI. mendean Pasaian egindako ontzia.



Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943 016 353



PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788

Erribera 1 behe



Santiago auzoa, 4

Tel. 943 143 370



TALAI-PE
jatetxea-erretoria

Arrainak, mariskoak eta txuleta parrillan
Julio Beobide ibiltokia

Tel. 943861392



Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973



Loradenda Lorazaintza
erribera, 1 tel. 943 860 778
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

Urola 2000, s.l.

Aroztegia

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzen
- *Enbarkazio konponketak
- *Ate, zokalo, tarima eta pertsiak
- *Armairu enpatatuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoak

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



Xanti Osa
Arantxa Azkue

Amaia plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385

Ardantzabide

ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa: Hego kalea, 4-5
Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943863532 Tel.: 943861631



- plater konbinatuak
- ogitarteak
- oilasko erreak

Urra Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA



Mitxel Urra

Oinetako eta
erropa
konponketak
Produktu eta
material
ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumai • 943 861 252 • 652 727 740



Alai auzategia, 20750 Zumai tel. 943 143 441 faxa 943 865 161



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santiago auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161



- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeltian
- GURE HELBURUA:
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behe • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA

Zumaia optika



Txomin Agirre kalea, 6 tel./faxa: 943 143 057

Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behe
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net



Gosariak-Pintxoak-Kaxuelitak-Eguneko menua-Asteburu
menua-Meriendak-Plater konbinatuak-Errozioak-Afariak
Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 Tel. 943 865 349



Izaskun
arropa-denda

P. Etxezarreta, 23 Tel. eta faxa: 943860098

tan pagatu beharko balu Eusko Jaurilaritza ez litzateke gai izango ezer ordaintzeko. Guk han enbaxadore lanak egin genituen, oso gustura, eta gure patrikatik dirua jarrita, gainera.

Euskal arrantzaleei buruz Kanadan asko dakitela diozu, ziur aski guk geuk baino gehiago. Pentsarazteko modukoa da hori.

Ezin da konparatu ere egin han daukaten kultura eta hemen duguna; esan daiteke hemen ez dugula itsasoarekin erlazionatutako kulturarik. Eta paradoxikoa ere bada beraiek baino itsas historia handiagoa, garrantzitsuagoa eta aberatsagoa daukagulako guk, euskaldunok. Begira zer kosta txikia daukagun! Ehun kilometro pasatxo! Eta, hala ere, munduko itsas herri handienetako izan gara, bai marinelengatik, baita honelako epopeiengatik ere. Pentsatu behar da euskaldunak zirela garai hartako potentzia mundial handienaren itsas abangoardia, gaur egungo Estatu Batuen itsas abangoardia izango bagina bezala. Leku guztietan zegoen euskaldunen aipamena eta itsas ondarea ere askoz zainduagoa dute. Diferentzia handiarekin, gainera. Lotsagarria ez da haiek guk baino gehiago jakitea, guk gure historiaz zer gutxi dakigun da lotsa ematen duena, eta horren erru handia da gu estatutik gabeko herria izan garela beti. Ez da historia ofizialtzat bezala hartua izan; mito edo legenda bezala ikusten da, eta beti frantses edo espainol bezala agertu gara. Hori izan da gure zoritxarra.

Esan daiteke abentura handi honek bi zati izan zituela: bat han egindako bidaia eta bestea behin portura helduta egin ziren liburua, hitzaldi eta orain aurkeztu den dokumentala.

Liburua urte berean atera zen Elkarren eskutik. Urte hartako Durangoko azokan izan zen salgai. Hitzaldietan, berriz, 8.000 lagunetik gora izan dira.

Alde horretatik, ez dago dudarik arrakasta izan duzuela. Baina dokumentala ezin bukatzearen arantzak ere barrenean sartuta izango zenuen urte hauetan.

Arantza baino gehiago, Drakula akabatzeko moduko hesola bat zen! Helburu nagusia dokumentala zen, gainera. Horretarako zuzendari bat kontratatu zen, baina gauzak bidaian bertan okertu ziren. Harremana zaila izan zen. Muturreko kondizioetan bidaiatzen genuen eta denbora pasa ahala harremanak zailtzen joan ziren. Haiek aldamenean zihoazen zodiac batean; kamera bakarra zeramaten eta harekin grabatzen zen guztia, soinu ere bai. Zoritxarrez, championseko partida batera Zumaikoren baliabideekin joan ginen. Hori gertatzen da inork ez dakielako baloratzen itsasoko espedizio bat zer izan daitekeen. Mendiko kultura handia daukagu hemen eta 8.000 metroko mendi bat igotzeko babesleak aurkitzea ez da hain zaila; meritua du, prestigioa. Baina esaten baduzu Kanadako Ipar Atlantikoan XVI. mendeko txalupa txiki batean 2.000 kilometro egitera zoazela, agian pentsatuko dute oporretara zoazela. Zoritxarrez, erreplikaezina zen eta dimentsio izugarriko espedizioa oso baliabide murriztekin kubritu behar izan genuen. Gero, bueltan ez geunden gustura egiten zen lanarekin, eta hor geratu zen korapilatuta. Pena daukat ez nintzela

“Euskaldunak ziren garai hartako potentzia mundial handienaren itsas abangoardia”

Ikus-entzunezkoen munduan buru belarri

Bertsolaria, idazlea, kronista... pertsonaia polifazetikoa da Jon Maia. Orain urte gutxi beste bide bat zabaldu zuen eta ikus-entzunezkoen munduan hasi zen lanean. Korrikak eskatuta, Bidaia intimoak izeneko dokumentala idatzi eta zuzendu zuen. Euskararen munduan murgildutako pertsona batzuen bizitza eta pasarteak kontatzen zituen pelikula hartan. “Oso gustura geratu ziren dokumental harekin eta zorionez arrakasta handia izan zuen”. Arrakasta horrek bultzatuta, Maia pelikula eta dokumentalen munduan dabil lanean. Gidoilari lanak egin eta gero, Apaizac Obetoren dokumentalaren pisua sorbalda gainean jaso zuen. Ez hori bakarrik: orain urte eta erdi inguru Idiazabalgo herri mugimenduen eta honek Eskoziarekin duen harremanari buruzko beste dokumental bat hasi zuen. “Beraiek eskatu zidaten hau egiteko. Orain urte eta erdi Eskozian egon ginen irudi batzuk grabatzen eta orain proiektu honetan nabil lanean”. Albaola elkarteko lagunekin harreman estua ere badu eta ia egunero joan ohi da Pasaiara. “Pelikula bat amaituta eta bestean buru belarri sartuta, apenas dudarenborarik niretzat. Zeinek esango zidan hau orain urte batzuk...”.



izan zuzendaria espedizioan bertan. Baina egia da nik orduan ez nuela inoiz ikus-entzunezkoetan lan egin; azken hiru urteetako gauza da hori.

Zein izan da arazoa lau urtean produktua geldirik izateko? Ez du merezi horretan sartzea. Min ere egiten du. Gainera, erabaki dugu horren inguruan ez hitz egitea.

Atzerapen honekin ez al duzue uste olatua galdu duzue-nik?

Ez dut uste. Azken finean, orain 400 urteko historia bat ari gara kontatzen. Lau urte zer dira horrekin parekatuta: ezer ere ez. Nahiago nuke norbaitek aurrerantzean historia honi buruzko lan gehiago egingo balitu.

Olatua galtzearena nioen garai hartan espedizioak medioetan sekulako harrera izan zuelako. Agian zalaparta haren ondoren sortutako bultzada galduko zenuten atzerapen honekin.

Horiek faktore txikiak dira, ezta? Produktu ona badaukazu, hori ez da eragozpena. Dokumentala egiteko denbora asko behar da; ez da etorri eta olatu hori aprobeztatzeko derrepentean egiten

"Muagi"

Medikuntza eta errehabilitazioa

FISIOTERAPIA

Maider Olazabal

KIRURGIA OROKORRA LISERI-APARATOA

Juan Ignacio Alberdi

AKUPUNTURA

Eduardo Troncoso

Libe Ilarramendi

Aita Mari poligonoa, 3, blokea
Tel. 943 86 16 91
Zumaia

RPS: 066/02

denda:

Mendaro marinela, 1

tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industrigunea

Pab. A6.1, 2-5 mod.

tel.: 943 861 117

fax: 943 861 330

industrialako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

den zerbait. Urtebete behar da gutxienez eta ordurako soinu edo zalaparta hori pasata dago. Gainera, denbora honetan konturatu gara asko aurreratu dugula: Albaolak bere burua ezagutzera asko eman du; azpiegitura aldetik ere aurrera egin dugu eta ontziola handi batean dago orain. Joan ginenean baino zerbait gehiago badakigu lau urte hauetan egin dugun lanari esker. Nik uste bai liburua irakurri edo hitzaldietan egon den jende horrek irrika handia izango duela dokumentala ikusteko.

Eta zer kontatzen da dokumental honetan?

Bi hari nagusi dauzka paraleloan kontatzen direnak: batetik, espedizioa bera, eta, bestetik, txaluparen historia. Batetik bestera salto egiten da eta batzuetan elkar gurutzatzen dute hariak. Dokumentalaren protagonista txalupa da, ez gu; gu panpina batzuk besterik ez gara. Txalupak erakusten digu bere bidean zehar euskal bale arrantzaile haien historia eta Ipar Amerikaren historia modernoaren hastapenetan euskaldunek izandako eragina eta utzitako arrastoak. Beste hariak txalupa aurkitu zenetik erreplika egin bitartean, eta espedizioa hasi bitartean izandako historia kontatzen du.

Azpitituluak lau hizkuntzatan egin dituzue: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Ikusten da baduzuela produktua mundura ateratzeko gogoia edo asmoa.

Aurkezpenaren ondoren munduko hainbat jaialditara bidaliko dugu. Ea zer harrera eta zer bide egiten duen. Hilabete luze batzuetan hor ibiltzea espero dugu. Gure asmoa historia hau gizarteratzea da; hori da dokumentalaren helburua: Euskal Herrira eta mundura zabaltzea historia hau eta itsas kulturaren ikuspegia. Kanadan ere ikusi zuten aurremuntaiak bat, Otawan, Parcs Canadaren egoitzan. Proba hura arrakastatsua izan zen. Behin amaituta bidali egingo diegu, interes handia dute eta. Kanadan baditu komertzializatzeko aukera handiak, baita telebista publikoan botatzekoak ere.

Pelikula hautatzen duten zinemaldietara joango al zara?

Egingo nuke bidaiatxoren bat! Lehiatzera bidaltzen dugu pelikula eta argi dago leku bakoitzean defendatu beharko dela. Nik, egia esan, ez dakit nola funtzionatzen duen honek.

Banatzailerik ba al du dokumentalak?

Oraingoz ez da banatuko.

DVDan aterako al duzue, orduan?

Jaialdietara zuzenean bidaliko dugu DVDa. Gero salgai izango den? Ez dakigu. Oso garai zailak dira hauek, bai itsas kulturarentzat, baita ikus-entzunezkoentzat ere. ETBri ere eskainiko diegu, Euskal Telebistan botatzea interesgarria da guretzat, zabalkunde duelako.

Banaketakik ez duela diozu. Zumaian ikusteko aukera izango al da?


Momentuz ez dut uste. Ideia proposatu didate, baina ekoizpen etxearen kontuak dira hauek: erabaki dute inon ez botatzea momentuz eta festibaletara bidaltzea. Niri gustatuko litzaidake Zumaian erakustea.

Zure bizitzako lau urte eman dizkiozu espedizio honi. Merreziko ote zuen?

Bai, nola ez. Oso zaila izan da dokumentala amaitzea, buruko min handiak eman dizkigu. Baina satisfakzio handia ere bada erakustea zer lan egin dugun. Orain dokumentalaren bizitza hasiko da.

Berriro ere sartuko zinateke honelako abentura batean?

Bai. Badaukat asmoa honelako abenturetan ibiltzeko. Albaolan ez daukagu ezer lotuta; lauzpabost proiektu baditugu, baina ez dakigu zein aterako den. Honelako espedizioak antolatzea lan handia da, baliabideak ere ez direlako asko. Baina oraingoan beste era batera planteatuko genuke lana. Nik uste munduko beste edozein espedizio edo jendeak egiten duen bezala jokatu behar dela: mundu mailan funtzionatzea; herri mailatik unibertsaltasuna bilatzea. National Geographic batekin hitz egitea, esaterako. ■



▼ HAIZEA

*Haizearekin topo egitea obsesioa
bihurtu zela dio Maiak. Ahal zutenean
ontziaren bela altza eta haizeak
bultzata egiten dute bidaia*



GORKA ZABALETA

BARRAREN GAINETIK

Itsaso handia dagoen bakoitzean Zumaiako barra argazkilarien jomuga bihurtzen da. Porlanezko hesia hutsaren hurrengo bihurtzen dute olatu erraldoiek. Argazkia azaroaren 9an dago egina, goizeko 10:00ak aldera.



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

AZAROA-ABENDUA

DEIALDIAK

ASTEBURU MIKOLOGIKOA:
urriaren 15etik 17era.
BIGARRREN ESKUKO
AZOKA: Urriaren 23an.
Azaroan GAZTEGUNEAN:
ASTE MULTIKUTURALA

AZAROAREN 15ETIK 22RA XIXILI EGUNAREN AITZAKIAN, MUSIKA ASTEA

Azaroak 12 18:30ean Aita Mari aretoan Eskusoinu kontzertua
Azaroak 15 18:30ean Komentuan, Musika Eskolako entzunaldiak
Azaroak 18 18:30ean Komentuan, Musika Eskolako entzunaldiak
Azaroak 19 19:00etan Jaialdia Maria eta Josen 22:00etan Maria eta Josen, ZUMAIKO MUSIKA BANDAren kontzertua: "Musika eta Zinea"
Azaroak 20 20:00etan SAN PEDRO ABESBATZAREN kontzertua: Luis Urteaga gogoratu. Abesbatzarekin batera, Udala

txistulari Banda, eta Mari Carmen Azpeitia, Fernando Gonzalo eta Iker Gonzalez organo-joleak.
Azaroak 21 BEHEKO PLAZA ABESBATZAREN saioa: 10:30ean parrokiaren Meza Nagusia, eta 12:30ean Erribera kalean Kantu Kalejira.

IKASTAROA

PINTURA TAILERRA: Astelehene eta asteazkenetan 18:30etik 20:00etara / astearte eta ostegunetan 15:00etatik 16:30era. Urriaren 4tik aurrera.
K.Z. Gunea: Internet ikastaroak. Informazioa: 943 86 28 66.
KUTXA IKASGELAK: Sukaldaritza eta Golf. Informazioa: www.kutxa.net
ARETOKO DANTZAK: Marisa Merinoren Dantza Eskola. Torreberrin, larunbatetan 15:00etatik aurrera.

AZAROA

Ostirala, 12
19:00etan Komentuan, "Junta de

Salvamento 15 de Noviembre" liburuen aurkezpen ekitaldia.

Larunbata, 13

10:00etan Irteera Geologikoa Algorritik
16:30etan "Zuloaga museoa eta Zumaia" bisita gidatua

Azaroak 17 eta/edo 18

18:30ean "Xixili eguneko" entzunaldiak

Osteguna, 18:

21:45ean Aita Marin zine forum: "SOUL KITCHEN".

Osteguna, 25:

19:30ean Forondan, hitzaldia: "EL DOCTOR MARAÑON EN ZUMAI" "

Ostirala, 26:

22:00etan Aita Marin, antzerkia "GEZURAREN PRINTZEA"

ABENDUA

Abenduaren 2tik 4ra, euskararen astea: emanaldiak, Zumaian saltaka, bazkaria, kantuak...

Osteguna 2

Arratsaldeko 19:00etan, Aita Mari zinemaren, Julene Azpeitia 23. ipuin lehiaketako sariaren banaketa eta emanaldia. Ez dok hiru Bikoteatroaren Euskarazetamol antzezlanak

21:45ean zine forum "Fish tank"

Ostirala 10ean hasita, asteburuan ZUMAIKO GABONETAKO AZOKA - Amaia plazan.

Osteguna 16

21:45ean zine forum "Let's get lost" (VOS)

9tik 12ra X. Klarinete Maratoia

Igandea 12

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia, "MIAULESS"

Ostirala, 17

19:00etan Algorrin, ZIIZen hitzaldia Zumaiko Industria ondarearen inguruan

20:00ETAN eta 22:30ean Aita Marin, VAYA SEMANITA antzezlanak

Larunbata, 18

20:00etan Parrokian, LARTAUN ABESBATZAREN kontzertua.





LIBURUA

Liburu berrien usaina maite dut.

Zirrara berezia sentitzen dut liburu erosi-berria zabaldu eta haren orrialde gozoen artean sudurra sartuta arnasa sakon hartzean. Ez dago horrelako sentsaziorik.

Haurra nintzelarik eskolako lehen eguna maite nuen, beste umeek ez bezala. Liburu berriak jasotzen genituen orduan, eta haien orrialdeak zabaltzean biziko nuen plazer ez tandaren irrikan egoten nintzen. Eskolako lagunek ezin zuten ulertu liburu berriak jasotzeak suposatzen zidan poza, eta arraro begiratzen ninduten orrialde artean murgilduta aurpegiratzen nuen estasi-begirada ikustean.

Heldutasunera iristean, liburu-dendak bihurtu dira nire plazeraren tenplu. Liburuz liburu nabigatzen dut orrialde inprimatu-berrien artean gozamen uneak biziz. Orduak joaten zaizkit hango usain eta zorabiotan galduta.

Horregatik, nire urtebetetzean oparitu didaten liburua desengainua izan da niretzat. Pozarren zabaldu dut oparia biltzen zuen kaxa, urtero bezala liburu berri-berria eskutan izateko desiran, han ezkututzen ziren orrialde gozoetan zain izango nuen plazeraren bila.

Ez da izan, ordea, nik espero nuen modukoa.

Liburu elektronikoek ez dute berri usainik.



Ardantzabidea
Sustatzailearen zuzeneko salmenta



Informazioa eta salmenta

Insausti Industrialdea z.g.
T. 843 85 02 22
M. 606 30 63 75
20720 AZKOITIA - Gipuzkoa
Argibide gehiago
gure webgunean
www.gruposalidor.com



AZAROAREN 12tik 21era

XIXILIREN AITZAKIAN

MUSIKAZ blai

Azaroak 12

18:30ean Aita Mari aretoan Eskusoinu kontzertua.

Azaroak 18

18:30ean Komentuan, Musika Eskolako entzunaldiak.

Azaroak 19

19:00etan Musika Eskolaren Musika Jaialdia Maria eta Josen.
22:00etan Maria eta Josen, ZUMAIKO MUSIKA BANDAREN kontzertua: "Musika eta Zinea".

Azaroak 20

20:00etan SAN PEDRO ABESBATZAREN kontzertua:
Luis Urteaga gogoratu. Abesbatzarekin batera, Udaltxistulari Banda, eta Mari Carmen Azpeitia, Fernando Gonzalo eta Iker Gonzalez organo-joleak.

Azaroak 21

BEHEKO PLAZA ABESBATZAREN saioa: 10:30ean parrokan Meza Nagusian, eta 12:30ean Erribera kalean Kantu Kalejira.



Zumalako Udala



Udaltxistulari Patronatua

Azaroa

% 5eko

DESKONTUA EZUSTEAN

Deskontua aleatorioki aplikatuko da.
Deskontua erosketa guztietan aplikatuko da zordundutako eta atzeratutako ordainketetan izan ezik.
Egindako erosketan/kontsumizioan aplikatuko da deskontua.



Zumaiako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



RURAL
KUTXA

Asmatu otarraren prezio zehatza!

Erosketa edo kontsumizio bat egin eta otar erraldoi bat irabazi!

azaroaren 30a arte



Zumaiako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



RURAL
KUTXA